

Parte-hartze irekia

ELGOIBARKO EMAKUMEEN ETXEA

ELKARREKIN DISENATZEN

2020ko ekaina



ELGOIBAR
UDALA
AYUNTAMIENTO

AURKEZPENA

PARTE-HARTZE PROZESUA

ESPAZIOAREN PLANOA

ZER DA EMAKUMEEN ETXEA?

Emakumeen Etxea emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde lan egiten duten norbanakoak, kolektiboak, elkarteak eta zerbitzuak artikulatzen dituen espazioa da. Beraz, indarrak bateratzen diren eta sinergiak sortzen diren leku fisikoa da. Era berean, emakumeen ahalduntze-prozesuak sendotzeko helburua du, sare berriak eginez eta gizartean sentsibilitatea sortuz.

NOLAKOA IZAN DAITEKE?

Emakumeen Etxeek forma eta eduki ezberdinak izaten dituzte, eta tokian tokiko eskaera eta beharriari egokitzen zaizkie. Haietako batzuek beren jarduna gai zehatzen batera bideratzen dute, eta beste batzuek hainbat gai jorratzen dituzte. Haietako batzuk erabiltzaile-profil jakin bati zuzentzen zaizkio, eta beste batzuek, eremu sozial zabal bat hartzen dute bere baitan. Batzuek jarduera ekonomiko propioa ere sortzen dute. Hainbat modutan kudeatzen dira: badira autogestionatuak, bazkideen eta administrazioaren artean kudeatutakoak, badira administrazioak oso-oso kudeatzen dituenak..

Proiektu hau gauzatzeko moduak asko dira. Horregatik, prozesuaren lehen fasean, herritarrekin asmoa partekatu eta iritzia jaso nahi izan ditugu.

AURREKARIAK

Gaur egun, Emakumeen Etxe ugari daude, bai Euskal Autonomia Erkidegoan, bai estatuan eta nazioartean. Aipatzekoa da, halaber, 2016ko irailean EAEko Emakumeen Etxeen Sarea sortu zela, egiten duten lana erakusteko eta garrantzia emateko, baliabideak partekatzeko eta komunikazioa errazteko xedearekin. Honako hauek sare horren barruan daude: Arrasateko Emakume Txokoa, Azpeitiko Emakumeen Txokoa, Basauriko Marienea, Donostiako Emakumeen Etxea, Durangoko Andragunea, Eibarko Andretxea, Ermuko Emakumeen Topalekua eta Ondarroako Etxelila.

PARTE-HARTZE PROZESUAREN HELBURUAK

Elgoibarko Udalak zerbitzu eta programen eskaintza zabala kudeatzen du berdintasunaren esparruan; hala ere, prozesuaren helburua da berdintasunaren alde beste urrats bat ematea.

Azken urteetan egindako ibilbideari jarraipena emanez, Udalaren hurrengo erronka Elgoibarko Emakumeen Txokoa definitu eta zabaltzea izango da. Horretarako, Udalak Emakumeen kontseiluarekin eta herriko beste hainbat talde eta arlotako emakumeekin elkarlanean, Emakumeen Txokoa irudikatzeko ibilbidea diseinatu du.

Herritarren inplikazioa handia izan da, eta bertan jasotako ekarpenak emankorak izan dira. Emakume elkarte feminista ezberdinen iritzia jaso ditugu, eta norbanako moduan ere herritar askok parte-hartu dute. Hurrengo lehenetan, parte-hartze prozesuan egin diren proposamenen aurkezpena jaso da.

NOLA IMAJINATZEN DUZU ELGOIBARKO EMAKUMEEN ETXEA?

Herritarrei egin zaien lehen galdera izan da. Bagenekien, proiektu berri honen inguruan, geure buruetan behin baino gehiagotan irudikatu dugula espazio hau. Buruari buelta batzuk eman eta amestu dugun espazio hori bi lerrotan islatzea izan da asmoa. Ondorengo ideia hauek jaso dira:

- Gune ireki eta balioaniztun bat, herriko emakumeen artean sororitatea sustatzeko balioko duena.
- Gaur egungo Emakume elkarteen eta norbanakoen arteko sinergiak sortzeko gune goxoa.
- Berdintasunaren alde orain arte egin diren ekintzak bilduko dituen espazioa, eta herriaren beharretara egokituko dena.
- Etorkizunean elkarlanerako eta somenerako aukerak eskainiko dituen bilgunea.
- Feminismoa ardatz hartuta, ezinbestekoa da interseksionalitate ikuspegiarekin lan egitea; herriko adin, ideologia, kultura, erlijio, klase sozial...anitzeko emakumeak batu, eta jendarte parekideago eta justuago baten alde lan egiteko gunea.
- Irekia eta plurala; ulertzen da emakume guztientzat izan behar dela, eta ez dela emakume bat ere proiektuaren parte izateko nahiz horretaz gozatzeko aukerarik gabe utziko.

ZURE IRITZIZ ZEIN HELBURU BETE BEHAR DITU?

Emakumeen etxea herriko emakume elkarteen eta mugimendu feministaren aspaldiko aldarikapena izan da. Xedea da espazio dinamikoa eta irekia, herriko emakumeentzako tokia, enpatia sortzeko topagunea, ikasteko eta informazioa jasotzeko tokia, jabeakuntza sareak sortzeko espazioa, eta emakumeen berdintasuna, askatasuna, partaidetza eta presentzia sustatzeko espazioa izatea. Udalak, aldarikapen hori erantzunez, San Frantzisko kaleko 21 zenbakian, orain arte, Gotzon Garate Udal Liburutegia egon den espazioa egokitzea erabaki du, 150 m² inguruko azalera izango duena.

HELBURUA	ZENBAT ALDIZ
Emakumeen parte-hartzea sustatzea bizitzako arlo guztietan, bereziki, jabeakuntza indibidualetik kolektibora bideratutako jarduerak landuz.	53
Emakumeen bizi-baldintzak ez ezik, emakumeek jendartean duten tokia hobetzeko ere lan egitea.	44
Elgoibarko talde eta elkarteen arteko elkarlana eta emakume anitzen arteko elkarlana sustatzea.	49
Berdintasunaren inguruko prestakuntza, sentsibilizazioa eta informazioa sustatzea.	51
Aldaketa soziala eta feminista lortzeko jarduera estrategikoak bultzatzea.	45

ZEIN ZERBITZU ESKAINI BEHAR DIRA BERTAN?

Eskaini nahi diren zerbitzuei buruz hitz egitean, garrantzitsua da espazioaren izaera eta helburua oso presente izatea. Formatu txikiko ekintzak irudikatu dira gehienbat. Herriko emakume askorentzat, helburu nagusietako bat da beraien abileziak gainontzekoei erakutsi eta bide batez ahalduzko prozesuan laguntzea.

Bestalde, ez da herrian dauden gainontzeko espazio eta zerbitzuen bikoizketarik sustatu nahi. Horixe izan da proiektuaren lehen fasetik oso garbi izan den ideia. Horregatik, emakumeen etxean egingo diren ekintzen helburua garbi izanda, formatu txikiko hainbat kultur ekintza egitea aberasgarria izango litzateke, baina herriko ohiko eskaintza zerbitzuen euskarri izango direla argi izanda.

Herriko emakume askorentzat jendarteratzeko lehen espazio bat izan daitekeelakoan gaude. Zehazki, legez kanpoko egoeran egoteagatik edo bizitoki berrian ahaiderik ez daukaten etorkinak izateagatik, zaugarritasun egoeran dauden eta biolentzia ugari jasaten duten emakumengana ere zuzentzeko beharra aipatu da.

Emakume gazteak eta nerabeak erakartzeko premiaren ideia ere landu da. Herriko nerabeen zerbitzuak (gaztelekua, 13-17 urte) zubilana egitea garrantzitsua izango litzateke. Baita oso nagusiak diren emakumeak erakartzea ere, horietako asko isolaturik eta egoera zaugarrian baitaude. Uste da arreta berezia eman behar zaiela adin tarte horiei.

Proiektuan gizonak parte hartzeari dagokionez, esan, ezin direla proiektutik kanpo utzi, berdintasunerako bidean beharrezko eragiletzat jotzen baitira. Batez ere, gizonak jarduera jakin batzuetan (maskulinitateei buruzko tailerretan, gurasoentzako tailerretan, aisialdiko jardueretan, etab.), sartzearen alde gaude, baina erabiltzaile gisa soilik, kudeaketa eta erabakiak hartzea emakumeen esku egongo baita soilik.

ZERBITZUAK	ZENBAT ALDIZ
Hitzaldiak	52
Jabetze Eskoa	50
Elkarleen bilerak	49
Erakusketak	40
Laguntza psikologikoa	40
Liburutegia (ikus-entzunezkoak)	24
Tailerak	
Zine-foruma	
Mahai-inguruak	
Denbora-bankua	
Ikus-entzunezko baliabideak	
Emakumeen afariak	
Poesia-irakurketa	

Laguntza juridikoa	
Amatasunari zein sexualitateari buruzko aholkularitza	
Gurasoentzako eskola	
Maskulinitateei buruzko tailerrak	
Emakumezkoen kirola sustatzea	
Ikuskizunak (antzerki, kontzertuak, ipuin kontalari, monologo...)	
Batukada	

ZEIN EDUKI LANDU BEHARKO LIRATEKE BERTAN?

Feminismoaren ikuspegitik landu daitezkeen gaiak hainbat izan daitezke. Zerrenda luze bat osatu da heritarren ekarpenekin eta beste pila bat zerrendatu genitzake:

EDUKIAK	ZENBAT ALDIZ
Autonomia garatzea	49
Sexualitatea	48
Emakumeen nortasuna eta subjektibotasuna	44
Parte-hartze sozial eta politikoa	42
Teoria eta mugimendu feministak	41
Munduko emakumeak	41
Erantzukidetasuna	40
Komunikazioa	40
Sorkuntza	35
Osasuna	35
Arrazakeria	35
Pubertaroa/gaztaroa	33
Ekonomia	30
Ekologia	27
Autoestimua	
Laneratzea	
Zaintza	
Indarkeria matxistaren prebentzioa	

ZEIN ESPAZIO IZAN BEHARKO LITUZKE?

Jasotako ekarpenetan behin eta berriz irten den ideia areto balioaniztunarena izan da; egun batean jolas gune den aretoa, hurrengo egunean, bideo gela izateko aukera, eta hirugarrenean, tailerrak egiteko gela. Polibalentzia hau lortzeko, proposatu da aukera egokia izango litzatekeela areto zabal bat eta tartean itxi daitezkeen panel batzuk jartzea. Altzariak ere, era eroso eta azkar batean batzekoak izatea garrantzitsua da.

Bestalde, gune ireki bat izateaz gain, espazioak beste gune intimoago baten beharra duela ere plazaratu digu herriak. Hainbat gai jorratzeko, eta zaugarritasun egoeran dauden emakumeei babes gune bat eskaintzeko, eremu babestuago bat izatea ere garrantzitsua dela jaso da. Bulego eta batzargela izan daitezke hau lantzeko eta intimitatea bermatu ahal izateko guneak. Kanpo espazioaren distribuzioa egitean ere, eremu intimoago bat izatea positiboki baloratu da.

Emakumeen Etxea bere kokaleku fisikoaz haratago iritsi behar da. Herrian berdintasunaren alde egiten diren ekintzak espazio horretatik kanpo ere egin behar dira. Feminismoaren helburu nagusietako bat da emakumeek plazaren erdigunea okupatzea, eta ideia hau oso presente izango da urteko programaketa lantzerako orduan.

ESPAZIOA	ZENBAT ALDIZ
Areto balioaniztuna (tailerrak, hitzaldiak, erakusketak, zine-foruma...egin ahal izateko)	54
Bulegoa eta batzar gela	43
Gainalde bat, harraska, kafetera, mikrouhin, sukalde...batekin	40
Biltegia	35
Zaintza gunea	22
Entsegu gunea (intsonorizatua)	5
Pertsona nagusien zaintza gunea	
Gimnasio aretoa (yoga, biodantza, mindfulness...)	
Kanpo gunea	
Edoskitze gunea	

IZENA ETA IZAERA

Proposamen zehatzak egiteaz gain, kontuan izateko hainbat irizpide zehaztu dira:

- Gizon-emakume dikotomia haustea garrantzitsua dela uste da.
- Proiektuaren helburua: berdintasunaren sustapena.
- Balio hauek azpimarratu dira proiektua eratzen duten ardatz gisa: berdintasuna, kulturartekotasuna eta belaunaldi-artekotasuna.
- Izena erraza eta irudia morea izatea
- Zerbitzua martxan jarri, eta denbora bat eman beharko genioke zer izango den irudikatzeko.

Proposamen zehatzak

- Txoko morea
- Andretxea
- Berdintasunaren gunea
- Emakumeak elkarlanean
- Mujeres en acción
- Emakumeen Txokoa
- Emakumeen Etxea
- La casa de las no invisibles
- Mujeres del Mundo...de la Tierra
- Mujeres Creando
- Uluka Etxea
- Ahiztaenea
- LILA

KUDEAKETA EREDUA

Kudeaketa-eredurik egokiena **baterako kudeaketa** da, udalaren ustetan. Zerbitzu publikoaren eta kudeaketa pribatuaren edota sozialaren arteko **eredu hibrido bat** izango litzateke.

Oro har, beharrezkotzat jo da, Etxea sortzeko prozesuan, emakumeen (elkartean daudenen eta ez daudenen) partaidetza hasieratik bermatzea, baita okupatu beharreko guneari, erabilerei nahiz ereduari buruzko erabakiak adostasunean hartzea ere.

Era berean, nagusiki nahitaezkotzat jo da proiektu honen **finantzaketa publikoa**; izan ere, tamaina handiko proiektu gisa agertzen da, finantzaketa pribatuaren bidez ordaintzeko oso zaila dena.

- Sustatzaileak: herriko Mugimendu Feministak + Emakumeen Kontseilua + berdintasun Saila (baterako kudeaketa).
- Jardueren kudeaketa: Berdintasun teknikaria + mugimendu feministak.
- Jardueren finantzazioa: Elgoibarko Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Espazioaren jabetza: Elgoibarko Udala.
- Langileen finantzazioa: hasiera batean, ez da langilerik aurreikusten bertan.

ESPAZIOAREN PLANOA

